



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.agoitz.eus – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

86 zk.-2024ko azaroa
URRIA LABURPENA

Agoitzek proiektu garrantzitsuak onartu ditu

Agoizko Udalak argi berdea eman die udalerraren hobekuntza eta garapen jasangarrirako hainbat ekimen funtsezkeri. Ekimen guztiak Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan daude. Akordio nabarmenen artean daude Orkideen Parkea eta Kanpondoa Bizikleta Zentro bat sortzea, eta baso-suteek eragindako larrialdietan udalak jarduteko plan berezia egitea.

AGOIZKO ORKIDEEN PARKEA. Onartutako lehenengo proiektua Agoizko Orkideen Parkea sortzea da; ekimenak udalerriko berdeguneak eraldatzea du helburu, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko ikuspegia ardatz hartuta. Proiektuak 32.920 euroko aurrekontua du (BEZik gabe), eta

sei hilabeteko epean egingo dela aurreikusita da. Helburu nagusia herritarren parte-hartzea sustatzea da, ikasleak zein helduak inplikaturik natura-ondarea zaintzeko duen garrantziaz kontzientziazteko.

KANPONDOA BIZIKLETA ZENTROA. Onartutako beste proiektuetako bat Kanpondoa Bizikleta Zentroa da: bizikleten karga elektrikoan eta garbiketan espezializatuko da eta, gainera, konponketak egiteko, alokatzeko eta ibilbide turistikoak deskargatzeko zerbitzuak eskainiko ditu. Zentroaren helburua Agoizturismo jasangarrian erreferente gisa kokatzea da, mugikortasun elektrikoa eta ingurune naturalaz gozatzea erraztuta. Esleitutako aurrekontua 25.106 euro da (BEZik gabe), eta obrak bi hilabeteko epean amaitzea aurreikusi da.

BASO-SUTEETARAKO LARRIALDI PLANA. Udalak baso-suteek eragindako larrialdietan udalak jarduteko plan berezia egitea ere onartu du. Plan horren helburua da udalerrira muturreko arrisku-egoerei aurre egiteko prestatzea, agintarien arteko koordinazioa eta pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren babesa bermatuta. Planak 5.546 euro (BEZik gabe) balio du, eta eredu turistiko seguruago eta jasangarriago baterako trantsizioa bultzatzeko neurrien parte da.

Proiektu horiek Agoizko Udalak jasangarritasunaren eta garapen turistiko arduratsuen alde duen konpromisoa berresten dute eta Europar Batasunaren klima- eta ingurumen-helburuekin bat egingo dute.



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno
de Navarra
Nafarroako
Gobernua



2030
cedema gazaluz



Ayuntamiento de Aoiz
Agoizko Udala



AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA



AGOITZ JASANGARRIA
AOIZ SOSTENIBLE

Gobierno
de Navarra
Nafarroako
Gobernua



AGOIZKO UDALAREN KOMUNIKAZIO, INFORMAZIO ETA PARTAIDETZA PLANA 2024

Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

Flamasatsen proiektuaren itxiera Agoitzen, ezusteko kolpea eskualdearentzat

Flamasatsek uko egin dio Agoitzen Clipper pizgailuen fabrika bat irekitzeko planari, eta horrek ezinegon handia sortu du Nafarroako Gobernuan eta udalean. Joan den uztailen iragarri zuten erabakia, eta, Mikel Irujo Industriako kontseilariaren arabera, "kolpe latza" izan zen, eta neurria "aldebakarrekoa" eta "ezustekoa" zela adierazi zuen. Lantegiak 250 lanpostu sortuko zituela agindu zuten eta 2020an Siemens Gamesak itxi ondoren tokiko ekonomia suspertzeko planen parte zen. Ángel Martín Unzué Agoizko alkatea toki-araubideko foru-batzordean izan zen, eta erabakiaren eragina izan zuten hizpide bertan.

Flamasatsek bere produktu nagusiaren salmenten beherakadarekin justifikatu zuen uztea, baita ezegonkortasun geopolitikoarekin eta gasaren prezioaren hegakortasunarekin ere. Irujoren arabera, enpresak hartutako erabakia ezin zen atzera bota, negoziatzeko

aukerarik eman gabe eta idatzizko azalpenik aurkeztu gabe. Horrek zur eta lur utzi ditu Nafarroako erakundeak, baimen guztiak azkar eman baitzizkioten enpresari.

ERREAKZIO POLITIKOAK. Parlamentuko batzordean, talde politikoek egoerari buruzko iritzia azaldu zuten. Navarra Sumako Ana Elizaldek kezka agertu zuen gero eta enpresa gehiago alde egiten ari direlako eskualdetik, eta kritikatu zuen Nafarroa ez dela konfiantzazkoa enpresentzako helmuga gisa. PSNk, berriz, itxiera deitoratu zuen, baina altxor publikoarentzat galera ekonomikorik egon ez zela nabarmendu zuen, eta hori aringarritzat jo zuen.

EH Bilduk "ulertezintzat" jo zuen ukoa, eta aitortu egin zuen proiektua atzeratzea edo murriztea gutxienez bai espero zutela, baina ez bat-batean bertan behera uztea. Geroa Baik jarrera zuhurragoa izan zuen. Enpresaren arrazoiak

ulertu zituen, baina gardentasun falta deitoratu zuen. PPNko Maribel García Malok kritikatu zuen Gobernuak autokritikarik ez egin ez izana, eta adierazi zuen agian gehiago egin zitekeela proiektua ez galtzeko.

Contigo-Zurekin taldeak Flamasatsen erantzukizun soziala azpimarratu zuen, eta erositako nabeekin ez espekulatzeko eta eskualderako inbertsio berri bat erraztu dezan eskatu zuen. Azkenik, Voxek iradoki zuen, enpresari zuzenean leporatu gabe, kasuak iruzur baten ezaugarriak izan zitzakeela.

Instalazioen etorkizuna. Proiektua bertan behera geratuta, Flamasatsek erosi zituen nabeak eta instalazioak (80.000m², Siemens Gamesa ohiarenak) xede berri baten zain daude orain. Bai Foru Gobernuak, bai Agoizko Udalak berrindustrializazio-plan bat dute esku artean, eskualdean inbertsioak erakartzeko eta enplegua sortzeko.



Iratiko Natur Bidea: turismo jasangarrirako eta tokiko garapenerako bide berdea



"Iratiko Natur Bidea" proiektua gauzatzeko bidean aurrera doa; partaidetzako prozesu baten bidez, herritarren 228 proposamen jaso dituzte, bide berde hori turismo jasangarriaren, suspertze ekonomikoaren eta ondarearekiko errespetuaren adibide bihurtzeko. Irati trenaren antzinako ibilbidea berreskuratzeko sortua, proiektuak 48km hartzen ditu Egues eta Zangoza artean, eta Europako bizikletentzako bideekin, Argaren Ibai Parkearekin eta Plazaolaren bide berdearekin lotuko da.

Iruñeko Trenaren Parkean, Trinitariosen, egindako ekitaldi batean, José María Aierdi Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak tokiko erakundeek eta herritarrek ekimen horretan izan duten inplikazioa goraiatu zuen; izan ere, bederatzi udalerrik parte hartzen dute ekimenean, eta Iratiko Natur Bidea hazkunde berdearen ardatz bihurtzea du helburu.

5.269.638 euroko inbertsioa egingo da bide berde horretarako, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak %100 finantza-

tuko du, Natur Bideak programaren bidez. Helburua lurzorua egokitztea, bideak zolatzea eta azpiegiturak eraikitzea da, hala nola zubiak eta atsedenguneak. Aurreikuspenen arabera, 2025eko bigarren erdian irekiko dute bidea.

Proiektuan inplikaturako bederatzi toki-erakundeek eskatu zuten partaidetzako prozesu hori. Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalurrek koordinatuta, eta Ahora Clima/Orain Klima-ren laguntza teknikoarekin, bederatzi saio egin zituzten, hiru segmentutan banatuta. Agoitz, Longida eta Urraulbeitiko zatian, organo kudeatzaile baten beharra nabarmendu zuten, bidea mantenduko dela eta Zerrategia auzo historikoa gune turistiko gisa berreskuratuko dela bermatzeko. Jarduerak antolatzea iradoki zuten, hala nola Irati ibaian aisialdiko jaitsierak eta Zuhaitzaren Egunaren inguruko ospakizunak.

Lede, Zangoza eta Irunberriko zatian, irisgarritasunean eta bidea Donejakue bidearen bizikletentzako alternatiba gisa sustatzean

oinarritzen dira hobekuntzak. Horrez gain, erabilera anitzeko espazioak eta "Iratiren Lagunak" elkarteak sortzeko asmoa agertu zuten, ondarea babesteko.

Eguesibar, Lizoain eta Urrotzeko zatian, seinaleak jartzeko beharra eta atsedenekuen eta aterpetxeen beharra azpimarratu zuten, baita udalerririk lotzeko ibilbideak berreskuratzeko beharra ere, turismo ekologikoa sustatzeko.

Proposamenak aisialdi-erabileraz harago doaz, eta honako hauek biltzen dituzte: erakunde publikoek babestutako ekintzailtza-ekimenak, ondarearen inguruko gidak eta zuhaitz autoktonoak landatzea. Iruñerrian, Urbi ibaiaren bidez, ibilbidea Argaren Ibai Parkearekin lotzea proposatu zuten, konektibitatea eta biodiversitate-ingurunea sustatzeko.

Horrela, Iratiko Natur Bidea turismo jasangarrirako erreferentziatzeko azpiegitura gisa agertzen da, eta Nafarroaren bihotzean ondarea, natura eta tokiko ekonomia lotzeko itxaropena du.

Esku-hartze arkeologikoa Zalurribarko San Salbatoren

Urrian, Zalurribarko San Salbatore monasterioa balioan jartzeko eta esku-hartze arkeologikorako proiektua gauzatu da. Proiektu hori Pirinioaurreko eta Zangozerriko Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Plana 2023-2025 egitasmoaren parte da; halaber, azken egitasmo hori Europar Batasunak finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresiliencia Planaren (Next Generation EU) parte da.

Agoizko Udalak abiatu du ekimena, eta helburu nagusia espazio hori berdegune gisa egokitzea da, herritarrek aprobetxatu dezaten; Cederna-Garalur elkartearen eta HIDEAren –Historia de Aoiz Kultur Elkartearen– laguntza du,

eta Aranzadi Elkarteari esleitu diote.

Monasterioarekin lotutako erreferentzia dokumental asko daude; Erdi Aroan eraiki zuten, eta ermita gisa iraun zuen XIX. mendera arte. Hori dela eta, aztarna batzuek iraun dute altxaeran. 2021ean esku-hartze arkeologikoaren bidez dokumentatutako eta 2022an finkatutako arkitektura-aztarnak daudela ikusita, 2024. urte honetan lanak osatu dituzte: eraikina mugatu dute zalantzarik gabe, egiturak finkatu dituzte, sastrakak kendu dituzte, garbitu egin dute, hondakinak kendu dituzte, erein egin dute, eta bankuak eta informazio-panelak jarri dituzte. Hori guztia gozamenerako eta aisial-

dirako gune gisa egokitzeke egin dute, gunea berreskuratuta eta gure herriko ondare-eta turismo-elementu gisa integratuta.

Aurreko kanpainetan bezala, lan hori guztia metodologia arkeologikoaren bidez egin dute, auzolanean. Hala ere, ezer ez litzateke posible izango boluntarioen laguntza gogotsurik gabe; berriro ere, denboraren ahanzturan galdutako ondarea berreskuratzeko lan solidarioarekiko konpromisoa erakutsi dute.

HIDEA Elkarteak eskerrak eman dizkiete beste behin pertsona horiei guztiei, eta iragarri dute proiektu berri bat abiatuko dutela udaberriari, ilusioz beterik.



Telefonogune adimenduna osasun-etxean

Joan den urriaren 10etik Nafarroako osasun-etxe guztiek telefonogune adimenduna instalatu dute. Hari esker, erabiltzaileek, zentrora deitzen dutenean eta linea okupatuta dagoenean, 8 zen-

bakia markatu dezakete, osasun-etxeeko langileek automatikoki deia itzultzeko, behin baino gehiagotan deitu behar izan gabe.

Servicio Navarro de Salud –

Osasunbideak udaberriari iragarri zituen neurrietako bat da, osasun-etxeetako telefono bidezko irisgarritasuna hobetzeko.

HORRELA FUNZIONATZEN DU. Norbaitek osasun-etxera deitzen badu edozein kudeaketa egiteko eta linea okupatuta badago, ahots-grabazio batek 8 zenbakia markatzeko aukera duela adieraziko dio, zentroak automatikoki deia itzul diezaion eskatzeko.

Dei hori itxaron-ilaran geratuko da eta, linea berriro libre geratzen denean, osasun-etxeeko langileek deia itzuliko diote, jasotako hurrenkeran.



Nafarroak udal-errola modernizatu du

Nafarroako Gobernuak udal-errola modernizatzeko asmo handiko proiektua iragarri du. Next Generation EU Europako funtsetatik jasotako 1,5 milioi eurorik finantzatu da. Ekimen hori tokiko erakundeak eraldaketa digitalerako planaren barruan dago, eta eroldaren kudeaketa nabarmen hobetzea ahalbidetuko du, informaziorako berehalako sarbide fidagarria erraztuko du eta udal-zerbitzuak optimizatuko ditu.

Proiektuaren ardatz nagusia udal-errola digitalizatzea da, udalen eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) artean informazioa denbora errealean trukatzeko sistema berri bat txertatuta. Gaur egun, erregistroko altak eta bajak hilerok jakinarazten zaizkio EINri, eta horrek atzerapenak sortzen ditu datuak eguneratzean. Sistema berriarekin, aldaketak berehala izango dira, eta informazioaren zehaztasuna eta fidagarritasuna hobetuko dira.

Funtsezko beste hobekuntza bat etxebizitzaren datu-base bateratu bat sortzea izango da, katastroari lotua, eta biztanleria georreferentziaz ahalbidetuko du. Aurrerapen hori, udalen barne-kudeaketa errazteaz gain, funtsezkoa izango da zerbitzu publikoetarako ere, hala nola larrialdietarako, osasunerako eta hezkuntzarako. Izan ere, zerbitzuek zehatz-mehatz kokatu ahal izango dituzte

biztanlegune sakabanatuetan dauden etxebizitzak, zailtasunak izan ohi baitituzte halakoetan.

Erroldaren hobekuntza hori Nafarroako udalerririk guztietan ezarriko da, Estatistikako Institutu Nazionalak zehaztutako parametroen arabera. Gainera, Nafarroako Gobernuak aholku emango die udal-errola dituzten informazio-sistemak egokitzeke.



Euskara ikasteko laguntzak

Joan den urrian egindako osoko bilkuran, Agoizko Udalak 2024ko ekitaldiari dagokion hainbat diru-laguntza emateko ebazpena onartzea erabaki zuen, euskara ikasteko eta udalekuak euskaraz egiteko. Deialdi horiek aipatu-tako jardueren gastuaren zati bat finantzatzea dute helburu. 6.500 euro bideratu dituzte euskara ikasten ari direnentzat, eta kopuru hori 36 eskaeren artean banatu da.

MINTZAKIDE PROGRAMA. Agoizko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta AEKk Mintzakide programa jarri dute martxan berriz ere, datorren ikasturterako. Ekimena Agoitzen aurkeztu zuten urriaren 17an, eta elkarrizketarako taldeak sortzea du helburu, euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen artean, gure herrietan euskararen presentzia areagotzeko. Elkarrizketarako talde horien bidez sortzen

diren harremanen bidez, mintzakideen arteko hartu-eman berriak sortu eta indartzen dira, euskaraz. Eta ez hori bakarrik, pertsona horiek guztiak ekarpen handia egiten baitiote euskalduntzeari: taldean elkarlanean aritzen dira eta ohitura hori inguruko jendearengana zabaltzen dute, hizkuntza ohituretan eraginda.

Omenaldia Eloko Tejerían

Joan den urriaren 19an, Teileriako Ahaztuak elkarteak, Eloko Udala-ren laguntzarekin, omenaldia antolatu zuen herriko Memoriaren Parkean. 1936ko abuztutik azarora bitartean II. Errepublikaren aurkako kolpe militar frankistaren ondoren matxinatuek erail zituzten 106 pertsonak gogora ekarri zituzten ekitaldian. Biktima horiek Nafarroako hobi komun handiengan lurperatu zituzten, Eloko Tejerían. Hildakoen artean Agoizko hamaika bizilagun daude; gertakari tragiko horrek haien biziaz ere kendu zizkien.

Familiak eta agintariak sinbolismoz beteriko ekitaldi hunkigarrian bildu ziren: zantzarren

soinuen ostean, biktimen izenak irakurtzeari ekin zioten, txalapartak lagunduta. Eta, haien omenean, César Asiainen musika egon zen, baita aureskua eta lore-eskaintza ere, Oihane Jaso, Xabier Dendarieta eta Josu Magallon agoiztarren ahotsek lagunduta.

Omenaldian, ez zen soilik iragana gogora ekartzera mugatu. Mikel Baztánek, Tejeriako Hobiaren espazioa hobetzeko arduradunak, oroimena eta natura lotzearen garrantzia gogoratu zuen, eta nabarmendu zuen "heriotza ez dela guztiaren amaiera; galera bakoitzetik bizi berria sor daiteke". Ildo horretan, ekimen berri bat aurkeztu zuen: "106 bizi-espezie"

ekimena, hildako bakoitzarekin landare edo animalia bat lotzea bilatzen duena, iluntasunaren aurrean biziak duen erresilientziaren metafora gisa. Gainera, ekitaldiak balio izan zuen Erorien Monumentua eraistea eskatzeko ere; ikur frankista horrek, Josemi Echarteren ustez (biktimetako baten biloba da), "hildakoen memoria urratzen du".

Tejeriako Hobia Nafarroako garrantzitsuenetakotzat jotzen da: 1936ko abuztutik urrira bitartean 94 pertsona exekutatu zituzten. Omenaldiak, memoria bizirik mantentzeaz gain, justiziaren eta erreparazio historikoaren premiazko beharra azpimarratzen du.



Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak

Zortzigarren urtez jarraian, Agoitzek bat egin zuen Ondareari buruzko Europako Jardunaldiekin (JEP). 2024ko edizioan "Kulturaren bideak, sare eta topagune" leloa izan zuten ardatz. Nafarroan 2016tik ospatzen diren jardunaldi horietan udalerriek beren kultura-ondarea erakusteko aukera izan zuten; horrek Europako lotura historikoei eta kultura-aniztasun partekatuari buruzko hausnarketa ahalbidetu zuen. Historia, kultura eta natura uztartu zituzten bi jar-

duera nagusi izan ziren Agoizko egitarauan. Urriaren 4an, ostiralekin, hiriaren inguruko galtzada erromatarrei buruzko hitzaldia egin zuten, eta parte-hartzaileak eskualdeko ibilbide historiko garrantzitsuenetako batean murgildu ziren. Biharamunean, urriak 5, larunbatarekin, Pirinioetako galtzada erromatarreko hainbat tokitatik ibilaldi gidatua programatu zuten; interesgune batzuk bisitatu zituzten, hala nola Aurizko Zalduako aztarnategia eta Artziko termak.

Beste jarduera aipagarrietako bat Agoizko dantza tradizionalen emaldia izan zen. Agramondarren eta beaumontarren arteko 1479ko bakearen sinadura ospatu zuten, hiriko armarrarian sinbolizatutako ekitaldi oso garrantzitsua.

Agoizko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Cederna-Garalurren laguntzarekin, historian zehar kultura-loturek izan duten garrantziaz sakontzeko eta hausnartzeko diseinatu zituen jarduera horiek.



Kostradaren Kofradiaren Lehen Kapituluua

Agoizko Kostradaren Kofradia 2014an sortu zen postre tradizional hori sustatzeko eta defendatzeko, eta herriko ikur den gozoki tipiko horren inguruan ospatu zuen bere Lehen Kapituluua. Horrela, pasa den larunbatean, urriak 19, Agoitzek egin berezia bizi izan zuen.

Eguna kofradien eta agintarien harrerarekin hasi zen. Ondoren, hiriko kaleetan zehar ibilaldia egin zuten Kultur Etxeraino, eta bertan egin zuten lehen Ohorezko Kofradeak izendatzeko ekitaldi handia. Horien artean, Salvador Gutiérrez Alcantara, Patxi Úriz Otano, Nazareth Torre Molina eta, Unai Lako Goñik ordezkatura, Erraldioen eta Buruhandien



Konpartsa nabarmendu ziren.

Bilaketa ahots- eta gitarra-taldeak eta San Miguel abesbatzak girotu zuten ekitaldia; tokiko tradizioen ospakizuna izan zen, eta kostrada postrea nabarmendu zuten agoiztarren identitatearen elementu nagusi gisa.

Izendapenen ostean, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa eta bertaratutakoak Agoizko kaleetan barrena ibili ziren berritro. Kapituluaren amaieran, anaiarteko bazkaria egin zuten eta, ezin bestela izan, kostradarekin eman zioten amaiera arbasoen postre horren garrantzia goraiatzeko egunari.

Angel Martín Unzuék, Agoizko alkateak, Kostradaren Kofradiaren Lehen Kapitulu hori gauzatzeko ahalbidetu duten ahalegina eta dedikazioa azpimarratu zituen, eta herriko tradizioak, kostrada kasu, ospatzen eta zabaltzen jarraitzearen garrantzia azpimarratu zuen, hiriaren identitate kultural eta gastronomikoa irudikatzen baitute.

Balantze kulturala



Joan den urriko kultura-agendan, adin guztietako jendearentzako jarduerak ere izan ziren, Ondareari buruzko Europako Jardunaldiez eta Kostradaren Kofradiaren Lehen Kapituluaz gain.

Antzerkiari dagokionez, eskaintza anitza eta erakargarria izan zen. Lehen proposamena Andoni Agirregomezkorta aktore famatuaren "Un vasco de la hostia" bakarriketa komikoa izan zen. Aktoreak euskaldunei buruzko estereotipoak umorez aletu zituen, eta, satiraren eta argitasunaren bidez, publikoarekin konektatzea lortu zuen. Aurrerago, antzerki bisualak hartu zuen protagonis-

moa, "Manual" lanarekin, Coriolis konpainiaren keinu-ikuskezunarekin. Ikuskizunak harridura eragin zuen bere ikuspegi berritzaile eta sinbolikoagatik: eskuak elementu nagusi gisa erabilita, umorez, gordintasunez eta samurtasunez betetako eszenak sortu zituzten.

Arte plastikoen esparruan, Koldo Aranz Zufiaurre artistaren "Keinu bat industrial iraganari" erakusketak duela gutxiko iragan industrialari buruzko hausnarketa eskaini zuen. Olioiz margotutako margolan batzuen eta grafitozko haien zirriborroen bidez, garai nahasiak ekarri zituen gogora. Horrela, erakusketa bisitatu zute-



nak oraindik ere presente dauden aspaldiko garaietan murgildu ziren.

Hilabetea amaitzeko, "Nafarroako XXIX. Nazioarteko Abesbatza Zikloak" Mixed Choir of Riga Cathedral Choir School taldearen emanaldia ekarri zuen Agoitzera. Letoniako talentu gazteen abesbatza ospetsuak konplexutasun handiko obra koralak interpretatu zituen, ezin hobe interpretatu ere.

Halaber, Agoizko Udalak, aurreko urteetan bezala, Multimedia izeneko atal bat jarri du bere webgunean, eta Iñaki Vergara argazkilariak festetan egindako argazki guztiak aurki daitezke bertan.

Lau t'erdikoa, berriro Agoitzen

Agoizko Toki Eder pilotalekuak pilota-gau zirrargarria bizi izan zuen joan den urriaren 11n. Lau t'erdiko bi partida garrantzitsu jokatu zituzten. Partida nagusian, Iraitz Zubizarretak 14-22 irabazi zion Mikel Urrutikoetxeari, eta final-laurdenetako ligaxkarako

txartela lortu zuen. Ataungoak nagusitasunez agindu zuen. Horma-biko erremate bikainak egin zituen, kalte handia egin ziotenak bizkaitarrari. Urrutikoetxea erreakzionatzen saiatu zen, aldea 12-16ra murriztu baitzuen, baina beranduegi zen. Zubizarretak hoz-

tasunez itxi zuen partida, eta ikusleek txalo-zaparrada jaso. Gaueko bigarren partida, B seriekoa, Senarren erakustaldia izan zen. Izan ere, nagusitasunez gailendu zitzaion Matari, 22-4. Hasieratik bukaerara izan zen nagusi nafarra, eta zaleek biziki gozatu zuten emanaldiaz. Garaipen horrekin, Senar ere final-laurdenetako ligaxkan sartu da.



Agoizko gau-ekitaldiak pilota-une gogoangarriak ekarri zituen. Jai-giro handia izan zen, sutsua, ikusleak berotzeraino. Beste behin, argi geratu zen Lau t'erdikoak pilota-egutegiko torneorik zirrargarrienetako bat izaten jarraitzen duela.